

DONOSTIA KIROLEKO PERTSONEN PLANA INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Kiroletako pertsonen plana dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko uztailaren 11ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuak ekainaren 29an Kiroleko artezkaritza kontseiluan, sindikatuen onarpena gabe eta oposizioko talde politikoeekin akordioak landu gabe, Pertsonen Plana onartu zuen.

Bestalde, Giza Baliabideen zuzendariak, plana ontzat ematen duenak, Donostia Kirolean plaza du; beraz, interes partikularrak izan ditzake gai honetan. Gainera bere plaza aldatu egin da.

Azkenik, lanpostuen katalogoan, bi lanposturen artean funtzioak errepikatzen dira, eta Kontu-hartzaileak ohartu egin du honetaz.

Hala eta guztiz ere, EAJk eta PSEk beren proposamena aurrera eraman dute.

Batzordean jasotako erantzunak negargarriak izan ziren. Erantzunean, udal taldeekin akordioa lortzeko ahalegina egin dela irakurri dugu, bilerarik egin ez den arren. Beste adibide bat: nahiz eta gobernuak giza baliabideen txostena ontzat eman zuen uztailaren 11n, artezkaritza kontseiluan guk egindako salaketari esker, giza baliabideen beste txosten bat jaso genuen, uztailaren 12an.

Hau dela-eta, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

MOZIOA

1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalean eta udal patronatu eta erakundeetan organigrama aldaketak egin nahi dituenean, udal taldeekin eta sindikatuekin akordioak landu ditzala, onespen handiena izan dezaten.

2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Udalean eta udal patronatu eta erakundeetan organigrama edota lanpostu aldaketak/balorazioak egin nahi dituzenean, zuzendariek beren lanpostuaren aldaketan parte har ez dezatela.

3-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Donostia Kiroleko artezkaritza kontseilua dei dezala lanpostuen katalogoa aldatzeko; hain zuzen, lanpostuen arteko funtzioak errepika ez daitezkeen Idazkaritza Departamentutik eta kontu-hartzaileak eskatu duten bezala.

Donostian 2016eko uztailaren 15ean

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia